



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

LESAKA

Lesakako herri ondasunak berreskuratzeko transakzio hitzarmenaren 5. oinarriaren aldaketa.

Lesakako Udalak, 2019ko urriaren 31an egindako osoko bilkuran, hasiera batean onestea erabaki du Lesakako herri ondasunak berreskuratzeko transakzio hitzarmenaren 5. oinarria aldatzea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 116. artikuluari jarraikiz. Aipatutako oinarriak 457/20019 Foru Dekretuaren bidez onartuak izan ziren eta 1995ko urriaren 23ko Nafarroako Aldizkari Ofizialeko 131. alean argitaratuak.

Aipatutako artikulua edukia horrela da: “Hitzarmen unitatetzat hartuko da partikularretako bakoitzaren notario-eskriturretan, 1994ko urtarrilaren 1 baino lehenagoko datarekin, ageri diren aprobetxamendu guztien batuketa. Horretarako, bateratu eginen dira titular desberdinen eskriturretan ageri diren aprobetxamenduak, baldin eta bizitoki, etxe edo sutondo berean elkarrekin bizi badira”.

Aldaketaren edukia hau da:

“Hitzarmen unitatetzat hartuko da partikularretako bakoitzaren notario-eskriturretan, ageri diren aprobetxamendu guztien batuketa. Horretarako, bateratu eginen dira titular desberdinen eskriturretan ageri diren aprobetxamenduak, baldin eta bizitoki, etxe edo sutondo berean elkarrekin bizi badira”.

Aldaketa hau jendaurrean egonen da hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, interesdunek espedientea aztertu eta alegazio edo erreklamazioak egin ditzaten; ohartarazten da, epe hori iraganik, ez bada bakarrik ere aurkeztu, aldaketa behin betiko onetsizat joko dela eta, espedientearen gainerakoarekin batean, Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunen gain utziko dela, onets dezaten.

Jendaurrean egonen da hilabetez, iragarki hau argitara ematen denetik aitzina.

Lesaka, 2019ko azaroaren 12an.

Alkatea,



Ladis Satrustegui Alzugaray.